

EUSKARAREN ERABILPENERAKO UDAL ORDENANTZA (1991) ORDENANZA MUNICIPAL SOBRE EL USO DEL EUSKERA (1991)

SARRERA

Euskera Euskal Herrian nazio-hizkuntza, bere ezaugarri eta ondarerik nagusia da, etakontutan izanik indarrean dagoenlegediaren arabera edozein herritarrek duela euskera ezagutu nahiz erabiltzeko eskubidea, gaztelania bezela, Komunitate Autonomoko Erakunde Amankomunei dagokie euskeraren erabilera bermatu eta arautzea bere aginpeko lurraldeetan hala nola beraien ezagutza segurtatzeko behar diren neurri eta bitartekoak erabaki eta erregulatzea, batez ere hainbat urtetan zokoratze-prozesua jasan duenean.

Euskera herritarren elementu integratzaile izan behar du eta, beraz, Gernika-Lumoko Udala saiatu egingo da bere esku dauden baliabide guztiak hartu eta hirian euskeraren ezagutza eta erabilpena normalizatzeko.

Aipatutakoari eutsita, Gernika-Lumoko Udalak Ordenantza hau tajutzen du, Udal Administrazioaren barnean zein herritarrekiko harremanetan nahiz beste erakunde batzuekikoetan eta bizitza sozialean zango duen bidezko jardunerako arau-esparrua zehaztuz.

LEHEN KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. Art.- Euskera, Gernika-Lumoko Udalean eta udalerrian hizkuntza ofiziala da.

2. Art.- Euskera eta gaztelania ofizialak badira ere, gizarte maila berean izatetik urrun daude. Beraz, Gernika-Lumoko Udalak lehentasunezko tratamendu berezitua emango dio euskerari bere normalizaziorako.

INTRODUCCION

El euskera es el idioma nacional, principal seña de identidad y patrimonio cultural del Pueblo Vasco y teniendo en Cuenta que en base a la legislación vigente todo ciudadano tiene derecho a conocerlo y a usarlo al igual que el castellano, corresponde a las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma garantizar y regular el uso del euskera en el ámbito territorial de su competencia, así como disponer y regular las medidas necesarias para asegurar su conocimiento y normalización, máxime cuando ha sufrido durante años un proceso de postergación.

El euskera debe ser elemento integrador de los ciudadanos vascos y, por tanto, el Ayuntamiento de Gernika-Lumo pondrá todos los medios a su alcance para la normalización de su conocimiento y uso en el municipio.

En aras de todo ello, el Ayuntamiento de Gernika-Lumo elabora la presente Ordenanza que define el ámbito normativo para la actuación pertinente tanto en el funcionamiento interno de la Administración Municipal como en las relaciones con los ciudadanos, así como con otros organismos y en la vida social del Municipio.

CAPITULO PRIMERO DISPOSICIONES GENERALES

Art. 1.- El euskera es lengua oficial del Ayuntamiento y del municipio de Gernika-Lumo.

Art. 2.- El euskera y el castellano, aún siendo ambas lenguas oficiales, están lejos de encontrarse en un plano de igualdad social. Por lo tanto, el Ayuntamiento de Gernika-Lumo dará un tratamiento diferenciado y preferente al euskera dirigido a su normalización.

3. Art.-Gernika-Lumoko Udal Administrazioak eta bere menpe dauden erakundeek, bere barne funtzionamenduan, zein herritarrekiko nahiz beste erakundeekiko harremanetan euskara erabiliko dute Ordenantza honetako xedapen arabera.

Art. 4.- Hiritar guztiek dute euskera zein gaztelania erabiltzeko eskubidea, nola hitzez hala idatziz. Ondorioz, Gernika-Lumoko Udalak, indarrean dagoen legediaren arabera, euskerari dagokionez honako eskubideak aitortzen dizkie espreski herritarrei:

a) Udalarekin eta bere menpeko Organismo ororekin ahozko eta/edo idatzizko harremana euskeraz izateko eskubidea.

b) Udalak antolatu edo/eta gestionaturiko ikasketak oro euskeraz eguteko eskubidea.

c) Udalaren argitalpenak eta Udalak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabidetan jakitera ematen dituen berri eta xedapenak oro euskeraz hartzeko eskubidea.

d).- Udaleko edozein bileratan euskeraz hitz egiteko eskubidea.

BIGAREN KAPITULUA UDAL ADMINISTRAZIO BARNEKO FUNTZIONAMENDUA

5. Art.- Izaera administratiboko barne iharduerak euskeraz burutuko ditu Udalak, hiritarren zerbitzurako hizkuntza ez ezik laneko hizkuntza ere izanik.

Lehenengo atala:errotuloak, sigiluk eta agiriak.

6. Art.- Bulego eta lan geletako errotuloak eta gainerako beste mota bereko adierazleak, euskera eta

Art. 3.- El Ayuntamiento de Gernika-Lumo, al igual que los organismos dependientes del mismo, utilizará el euskera tanto en el funcionamiento interno como en las relaciones con los ciudadanos y con el conjunto de organismos e instituciones, con arreglo a las disposiciones recogidas en la presente Ordenanza.

Art. 4.- Todos los ciudadanos tienen el derecho tanto de conocer como de hacer uso oral y escrito del euskera y del castellano. En consecuencia, el Ayuntamiento de Gernika-Lumo, acorde con la legislación vigente, reconoce expresamente a los ciudadanos los siguientes derechos en lo que respecta al euskera:

a) Derecho a mantener relaciones orales y/o escritas con el Ayuntamiento y con cualquier organismo dependiente del mismo en euskera.

b) Derecho a realizar cualquier tipo de enseñanza organizada y/o gestionada por el Ayuntamiento en euskera.

c) Derecho a recibir en euskera las publicaciones del Ayuntamiento y todo tipo de notificación o disposición de la que dé cuenta el Ayuntamiento mediante prensa diaria, periódica, radio o cualquier otro medio de comunicación.

d) Derecho a intervenir en euskera en cualquier reunión celebrada en el Ayuntamiento.

CAPITULO SEGUNDO FUNCIONAMIENTO INTERNO DE LA ADMINISTRACION MUNICIPAL

Art. 5.- El Ayuntamiento llevará a cabo en euskera las labores internas de naturaleza administrativa, constituyéndose no solo en lengua para dar servicio a los ciudadanos sino también en lengua de trabajo.

Sección primera: Rótulos, sellos y documentos.

Art. 6.- Los rótulos de las oficinas y dependencias de trabajo y demás indicadores de características

gaztelaniaz egingo dira, beti ere euskera hutsean honako hauek izanik:

a) Euskeraz eta erderaz oso antzeko grafia duten hitzak idazterakoan.

b) Mezua piktogramaz baliatuz adierazi litekeenean.

Forma elebiduna erabiltzeko behar-izana gerta dadin kasuetan, euskerari lehentasuna emango dion bertsioa erabiliko da, 2. Artikuluan ezarriari eutsiz.

7. Art.- Udal Saila eta Erakunde ezberdinetako sigiluak euskeraz jarriko dira.

Sigiluak esaldi osoak jartzeko erabili eta forma elebiduna erabiltzeko behar-izana gerta dadin kasuetan, euskerari lehentasuna emango dion bertsioa erabiliko da.

8. Art.- Udaletxera sartzen diren nahiz Udaletxetik ateratzen diren dokumentuak idatzita dauden hizkuntza ofizialean inskribatuko dira Udal Erregistroan.

Bi hizkuntza ofizialetan idatzita daudenak euskeraz inskribatuko dira.

Ondoren aipatzen diren agirietan euskera besterik ez da erabiliko:

1.- Azaroaren 24ko 10/1982 oinarritzko legea, euskeraren erabilera normalizatzekoa, betetzea dagokien Administrazio Publikoei igortzen zaizkien idatzietan.

2.- Euskera hizkuntza ofiziala duten Organismoei bidaltzen zaizkien idatzietan.

9. Art.- Erregistrotik luzatutako ziurtagiriak euskeraz eskeiniko dira. Beti ere, eskatzaileak egiten duen hizkuntzaren aukera librea errespetatuz.

10. Art.- Udalaren eta menpe dauden erakunde bandoak, araudiak, ordenantzak eta ebazpenak oro bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira, Ordenantza honetako 4. Artikuluaren eskubideak kontutan izanik, euskera hutsean egitearen kalterik gabe, eraginpean dauden pertsonen aukera eta iharduera motaren arabera.

similares se harán en bilingüe, y utilizándose sólomente el euskera en los siguientes casos:

a) Al escribir términos cuya grafía sea muy semejante en euskera y castellano.

b) Cuando el mensaje pueda ser transmitido mediante pictogramas.

En los casos en que sea necesarias la utilización de la forma bilingüe, se dará preferencia el modelo que destaque el euskera acorde con el criterio establecido en el artículo 2.

Art. 7.- Los sellos correspondientes a los diferentes Departamentos y Organismos Municipales irán en euskera.

En los casos en que se empleen sellos para la estampación de frases y se considere necesaria la utilización de la forma bilingüe, se dará preferencia al modelo que destaque el euskera.

Art. 8.- Los documentos a los que se dé entrada o salida en el Ayuntamiento, serán inscritos en el Registro Municipal en la lengua en la que se hallen escritos.

Los que estén escritos en ambas lenguas oficiales se inscribirán en euskera.

Se utilizará únicamente el euskera en los documentos a continuación indicados:

1.- En los escritos que se remitan a las Administraciones Públicas a las que corresponda cumplir la Ley Básica 10/1982 de 24 de Noviembre, de normalización del uso del euskera.

2.- En los escritos enviados a Organismos que tengan como lengua oficial el euskera.

Art. 9.- Los certificados expedidos en el Registro se harán en euskera, respetando siempre la libre elección de idioma que haga el solicitante.

Art. 10.- Todo bando, reglamento, ordenanza y resolución del Ayuntamiento y organismos dependientes de él se publicarán en las dos lenguas oficiales, sin perjuicio de que teniendo en cuenta los derechos establecidos en el artículo 4 de esta Ordenanza se haga solamente en euskera, respetando la opción de las

personas afectadas y la naturaleza de la actividad de que se trate.

11.Art.- Jakierazpenetan, ziurtagirietan, prentsa iragarki eta ohiarretan eta edonolakoargitalpenetan, aurreko artikuluan ezarriari eutsi beharko zaio, beti ere 2. Artikuluaren arabera euskerari lehentasuna emanaz.

Art. 11.- En las notificaciones, certificaciones, anuncios y notas de prensa y publicaciones de todo tipo, se actuará en base a lo señalado en el artículo anterior, dando siempre preferencia al euskera como indica el artículo 2.

Bigarren atala: Aktak, udal organoen bilkurak.

Sección Segunda: Actas, reuniones de los Organos municipales.

12. Art.-Udaleko organo informatiboen eta Gobernu Batzordearen bilkuretan akten testuoriginalak bileretan erabilitakohizkuntza ofizialean idatziko dira. Edozein kasutan, euskeraz idatzitako proposamen edo diktamenei buruzko erabakiak, bileretan gaztelaniz eztabaidatuak izan badira ere, euskeraz jasoko dira aktetan. Hau guztia 13.artikuluaren kalterik gabe.

Art. 12.- Los textos originales de las actas de las reuniones de órganos informativos y Comisión de Gobierno del Ayuntamiento, serán redactadas en la lengua oficial en que se haya celebrado la reunión correspondiente. En cualquier caso, los acuerdos referentes a propuestas o dictámenes redactados en euskera aún habiendo sido deliberados en la reunión en castellano, serán recogidos en las actas en euskera. Todo ello sin perjuicio de lo establecido en el artículo 13.

Osoko bilkuretako aktak euskeraz jasoko dira, nahiz interbentzioak egin izan diren hizkuntan jaso.

Las actas de las sesiones plenarios serán redactadas en euskera, aunque las intervenciones sean recogidas en la lengua en que se realicen.

13. Art.- Udaleko organo guztiak dute -informatiboek nahiz exekutiboek bere ohizko lan-hizkuntzat euskera aukeratzeko eskubidea. Erabaki hori har dezaten organoen bilerak sistematikoki euskeraz egingo dira, eta euskeraz ez dakiten partaideentzat egokitu egin beharko dituzte mekanismoak organo beraiek. Era berean, organo horien aktak, gutunak, jakinerazpenak eta agiriak oro euskeraz idatziko dira, beharrezko den kasuetan gaztelerara itzultzearen kalterik gabe.

Art. 13.- Todos los órganos del Ayuntamiento -tanto informativos como ejecutivos- tienen derecho a optar por el euskera como lengua de trabajo habitual. Las reuniones de los órganos que adopten ese acuerdo se realizarán sistemáticamente en euskera y serán los mismos órganos quienes habiliten mecanismos para el caso de aquellos miembros que no entiendan el euskera. De igual manera, todas las actas, cartas, notificaciones y documentos de dichos órganos serán redactados en euskera, sin perjuicio de que en los casos en que sea necesario se realice la traducción al castellano.

Hirugarren atala: Udal enpleguak (euskalduntzea, alfabetatzea eta kontratazioa).

Sección tercera: Personal municipal (euskaldunización, alfabetización y contratación).

14. Art.- Aurreko artikuluetan jasotakoa gauza dadin, udalenplegatuek

Art. 14.- Con el fin de cumplir con lo dispuesto en los artículos anteriores,

euskaldundu eta alfabetatzeko neurri egokiak hartuko ditu Udalak. Guzti horretarako, Azaroaren 25eko 250/1986 Dekretua eta Urriaren 17ko 224/1989 Dekretuaren ildotik, Udaleko eta Udalaren menpeko organismoetako lanpostu guztien hizkuntz eskakizunak definitu eta onartuko ditu, lanpostuetan jardun ahal izateko ezinbesteko baldintza gisa lanpostuen zerrendetan jasoko direnak.

Euskera Zerbitzuak, Herri Arduralaritzarako Euskal Erakundea eta Hizkuntza Politikarako Idazkaritzarekin elkarlanean, aipatu hizkuntz eskakizunak zehaztuko ditu, bidezko proposamena Euskera Batzordeari egin eta honetan eztabaidatzeko, gero EuskeraArloko Delegazioak txosten bat eman eta proposamen zehatza eginik Udalbatzak onar dezan, ondoren Ordenantza honi eranskin gisa lotuko zaizkiolarik.

15. Art.- Hizkuntz eskakizunen derrigortasunerako biderapenak, hauek aldatzeko posibilitatea, bakoitzari dagokion gaitasun maila eta administrazio-atal elebidunen zehaztapena, besteak beste, Urriak 17ko 224/1989 Dekretuaren arabera egingo dira.

16. Art.- Ordenantza honen arabera, euskera zerbitzurako hizkuntza ezezik lanerako izango denez, dagokien hizkuntz eskakizuna jadanik betetzen duten enplegatuek euskeraz burutuko dute beren lana, eta gainontzekoek, elebiduntze plangintzaren barruan euskalduntzen doazen heinean, beren lana piskanaka-piskanaka euskeraz burutzeari ekingo diote, dagokien hizkuntza eskakizuna eskuratzean erabat euskeraz jardungo direlarik.

Euskera Zerbitzua izango da udal enplegatuen zein herritarren hizkuntz eskubideen bermetan Gaztelaniaz ere eman behar dena gaztelaratuko duena.

Art.17.- Funtzionari nahiz lan-erregimen menpeko barne promozio edota

el Ayuntamiento adoptará las medidas oportunas para proceder a la euskaldunización y alfabetización de sus empleados. Por ello, de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto 250/1986 de 25 de Noviembre y el Decreto 224/1989 de 17 de Octubre, se definirán y aprobarán los perfiles lingüísticos de todos los puestos de trabajo del Ayuntamiento y de los organismos dependientes del mismo, que serán recogidos en la relación de puestos de trabajo como requisito imprescindible para poder desarrollar las funciones inherentes a los mismos.

El servicio de Euskera, en colaboración con el Instituto Vasco de Administración Pública y la Secretaría de Política Lingüística, definirán los perfiles lingüísticos señalados anteriormente, pasará la correspondiente propuesta a la Comisión de Euskera y tras ser debatida en ésta, la Delegación de euskera emitirá un informe con la propuesta concreta para su aprobación en Pleno, tras lo cual se recogerán como anexo de la presente Ordenanza.

Art. 15.- Los trámites para la consecución de la preceptividad de los perfiles lingüísticos, la posible modificación de los mismos, su descripción y la determinación de las unidades administrativas bilingües, entre otras cuestiones, se realizarán conforme al Decreto 224/1989 de 17 de Octubre.

Art. 16.- Con arreglo a la presente Ordenanza, y como quiera que el euskera no solo es lengua de servicio, sino también aplicada al trabajo, los empleados que ya se ajustan al perfil lingüístico que les corresponda desempeñarán sus funciones en euskera, y el resto comenzará a desarrollar paulatinamente su trabajo en euskera en la medida en que vaya euskaldunizándose, de forma que una vez se haya adecuado al perfil lingüístico que le corresponda realizará todo su trabajo en euskera.

Será el Servicio de Euskera quien realice las traducciones necesarias al castellano, en garantía de los derechos lingüísticos tanto de los empleados del Ayuntamiento como de los ciudadanos.

Art. 17.- Para proceder a la provisión de un puesto de trabajo mediante

deialdi publikoz lanpostu berri batetaz jabetzeko derrigorrezko izango da lanpostuari dagokion hizkuntz eskakizuna egiaztatzea. Beraz, frogak gaintitzen dituztenen artean lanpostuaren hizkuntz eskakizuna ere betetzen duen lehen izangaia jabetuko da lanpostuaz.

Frogak gaintitutakoen artean lanpostuaren hizkuntz eskakizuna betetzen duenik ez balego, bi aukeraotariko bat egin beharko luke Udalak: plaza hutsik utzi, berriro deialdia egitekotan, edo Urriaren 17ko 224/1989 Dekretuko 22. artikuluanen 3. Ataldian ezarritako baldintzak betetzen dituen lehenengoari behin-behingo kontratua egin, kasu honetan Udalak kontratatuari arrazoizko epe bat jarriko liokeelarik bere hizkuntz eskakizuna eskura dezan, horretarako beharrezko dituen baliabideak eskainiz. Epe hori bukatu ondoren, behin-behingo kontrataturiko enplegatuek dagokion hizkuntz eskakizuna lortu duela egiaztatu beharko dio Udalari.

Horrela frogatzen baldin badu behin-betiko izaera hartuko du bere kontratuak, bestela, ostera, lan-kontratua hautsi egingo da, lanpostu hori betetzeko barne promoziora edota deialdi publikora jo ahal izanik berriro.

18. Art.- Azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuko 12. Artikuluan xedaturiko bost helburu mailekatuetako boskarrena hartzen du beretzat Gernika-Lumoko Udalak, hau da, Zerbitzu eta Administrazio atal oro osorik elebietan lanean jartzea.

19. Art.- Aipatu Dekretuko boskarren helburua bost urtetan lor dadin plangintza egokia prestatu eta hezurmamituko du Gernika-Lumoko Udalak, plangintza horretan zehaztuko delarik enplegatuei hizkuntz eskakizunak betetzeko prozedura, bitartekoak eta lehentasunak.

Euskera Zerbitzuak kontrolatuko du prozesu horren garapena. Enplegatu bakoitzarentzat egoki den bitartekoa honen adostasunean aplikatuko da eta

promoción interna oconvocatoria pública, bien sea en régimen laboral como en régimen de funcionariado, será requisito indispensable acreditar el perfil lingüístico que corresponda al mismo. Por lo tanto, accederá a la plaza convocada el primero de los aspirantes que, habiendo superado las pruebas, se adecúe asimismo al perfil lingüístico.

Si entre los aspirantes que superen las pruebas referidas en el apartado anterior no hubiera ninguno que cumpla el perfil lingüístico, el Ayuntamiento deberá optar por una de estas dos posibilidades: dejar la plaza vacante, para así volver a realizar la convocatoria, o contratar con carácter provisional al primer aspirante que cumpliera con los requisitos exigidos por el artículo 22, párrafo 3º, del Decreto 224/1.989 de 17 de Octubre, estableciendo el Ayuntamiento en este segundo caso un plazo razonable para que el contratado se adecúe al perfil lingüístico que le corresponda y ofreciéndole los medio necesarios para ello.

Una vez finalizado dicho plazo, el empleado contratado deberá acreditar ante el Ayuntamiento que cumple con el perfil lingüístico que le corresponde. Si así lo acredita, su contrato tomará carácter definitivo, pero de lo contrario, quedará rescindido, pudiendo disponer de nuevo, en ese caso, dicha plaza a promoción interna o realizar convocatoria pública.

Art. 18.-El Ayuntamiento de Gernika-Lumo opta por el quinto objetivo de los cinco graduales dispuestos en el Art. 12 del Decreto 250/1986, de 25 de Noviembre, es decir, habilitar a todos los Departamentos para que funcionen totalmente de un modo bilingüe.

Art. 19.-El Ayuntamiento de Gernika-Lumo determinará y desarrollará la planificación conveniente para que sea efectiva la consecución en un plazo de cinco años del quinto objetivo referido en el citado Decreto, señalando en dicho plan el procedimiento para la adaptación de los empleados al perfil lingüístico correspondiente, los medios y las prioridades.

El Servicio de Euskera controlará el desarrollo de dicho proceso. El medio

eztabaidarik sortuko balitz Administrazioiko ENBA-k (Euskera Normalizatzeko Batzordeak) erabakiko du.

Edozein kasutan, ondoko ordena honi jarraiki ezarriko dira euskalduntze-alfabetatze prozesu horretako lehentasunak:

- Udal Zerbitzuei dagokienez: Kultura eta Hezkuntza, Osasun eta Gizarte Ongizatea, beraien menpe dauden fundazioak, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Udaltzaingoa eta Barne Zerbitzuak.

- Lanpostuei dagokienez: Idazkaria, Kontuhartzailea, Azpibatzaileak Idazkariak eta Zerbitzu-Arduradunak.

Nolanahi ere, aipatu plangintza hezurramitzeari ekitearekin batera, herri-tarrekiko harreman zuzeneko duten Zerbitzu guztietan ahozko komunikazio elebiduna bermatzeko neurri egokiak hartuko dira.

Enplegatuek dagokien hizkuntza eskakizunera egokitzeko programaren aplikazioan, lantalde edo departamentu bereko enplegatuen artean euskalduntze eta alfabetatze prozesuan aurreratuen daudenak lehenetsiko dira.

HIRUGARREN KAPITULUA
EUSKERAREN ERABILERA GERNIKA-LUMOKO
UDALERRIAN.-

20. Art.- Euskera gizarte-esparru guztietan erabilia izan dadin eta, orohar, gizarte-bizitzan euskeraren presentzia gehi dadin, neurri egokiak hartuko ditu Udalak. Ildo horretan, hiru dira euskeraren erabilera Gernika-Lumoko Udalerrian normalizatzeari dagokionez Udalak beraren gain hartzen dituen bitarteko nagusiak:

a) Zabalpen funtzionala: euskera gizarte-bizitzan gero eta indartsuago egon dadin, planak bideratzea.

b) Zabalpen demografikoa: elebidunen kopurua handiagotzea, euskeraz ez dakitenek ikas dezaten bideak jarritz, eta dakitenek algabetatu daitezten bitarteko egokiak bideratuz.

c) Zabalpen geografikoa: euskera Gernika-Lumoko herriko auzo eta auzune guztietara zabaltzea.

Beraz, euskeraren erabilera

que se estime idóneo para cada empleado se aplicará con la conformidad de éste y en caso de conflicto dirimirá la Comisión de Normalización del Euskera de la Administración Municipal (ENBA).

En cualquier caso, las prioridades para dicho proceso de euskaldunización-alfabetización se establecerán con arreglo al siguiente orden:

- En lo referente a Servicios municipales: Cultura y Educación, Sanidad y Bienestar Social, fundaciones dependientes de dichos Departamentos, Urbanismo, Obras y Servicios, Policía Municipal y Servicios Internos.

- En lo referente a los puestos de trabajo: Secretario, Interventor, Secretarios de Comisiones Informativas y Responsables de Departamento.

De todas formas, junto con el desarrollo de la citada planificación se tomarán las medidas oportunas para garantizar la comunicación oral bilingüe en todos los servicios que mantengan relaciones directas con el ciudadano.

En aplicación del programa para la adecuación de los empleados al perfil lingüístico que les corresponda, entre los empleados de un mismo grupo de trabajo o departamento, se concederá preferencia a aquellos que se encuentren en situación aventajada en el proceso de euskaldunización y alfabetización.

CAPITULO TERCERO
USO DEL EUSKERA EN EL MUNICIPIO DE GERNIKA-LUMO.-

Art. 20.- El Ayuntamiento adoptará las medidas adecuadas para promover el uso del euskera en todas las áreas sociales y, en definitiva, para incrementar la presencia del euskera en la vida social. Ante ese propósito, son tres los objetivos que asume el Ayuntamiento con vistas a la normalización del euskera en el municipio de Gernika-Lumo:

a) Difusión funcional: realizar planes para que el euskera se vea cada vez más fortalecido en la vida social.

b) Expansión demográfica: aumentar el número de hablantes bilingües propiciando medios para que los no vascohablantes aprendan y estableciendo los recursos adecuados para que se alfabeticen los vascohablantes.

c) Expansión geográfica: extender el uso del euskera a todos los barrios y puntos del municipio de Gernika-Lumo.

ziurtatu, bultzatu eta gizarteenerabilpen-
esparru guztietan orokortzeko xedez,
ahalegin berezia egingo du Gernika-Lumoko
Udalak.

21. Art.- Gernika-Lumoko Udalerriko
kale, bide, auzo, auzune, mendi, ibai eta
erreken, izendegi ofiziala eta, orohar,
toponimikoak, Gernika-Lumoko Udalak
finkatuko ditu bere eskumen-esparruan.

Herribideetako trafikuko seinale eta
iragarpenak oro ordenantza hauetako 6.
artikuluak aipatuari jarraiki ezarriko
dira, nazioarteko arauak errespetatu eta
ulergarritasuna bermatzearen kalterik
gabe.

22. Art.- Gernika-Lumoko garraio
publikoetako inprimaki, abisu eta
adierazpenak oro euskeraz eta gaztelaniaz
egin daitezten eta mezuaren ulergarritasuna
bermatu ahal litekeenean euskera hutsean
egin dadin neurri eraginkorrak hartuko ditu
Udalak.

23. Art.- Bulego tegiak, merkatal
lokalak eta abarretako saltokietako
errotuloak euskeraz jartzeko edota
zuzentzeko erabaki egokiak hartuko ditu
Udalak.

Horretarako, besteak beste,
subentzio sistema ere erabiliko da, diru-
laguntza horiek eskeintzeko unean-uneke
erizpideak jartzea Euskera Batzordearen
esku utzirik, gizarte egoeraren bidezko
azterketaren emaitzea lotuta jokatuz.

24. Art.- Azaroaren 24ko 10/1982
oinarrizko Legearen 26. eta 27.
Artikuluetan xedatuaren arabera, euskera
gizarte-esparru guztietan eta publizitatean
erabili dadin eta, orohar, gizarte
bizitzan euskeraren presentzia gehi dadin
neurri egokiak hartzea dagokie botere
publikoei.

Hortaz, Gernika-Lumoko Udalak,
Aipatu xedearen harian eta bere iharduketa
eremuan, honako neurriok hartu eta
beteraziko ditu:

1.- Kultur, kirol eta aisi elkarteei
subentzioak ematerakoan hizkuntzaren

Por ello, el Ayuntamiento de
Gernika-Lumo realizará un esfuerzo
especial con el fin de asegurar, promover
y generalizar el uso del euskera en todo
el ámbito social.

Art. 21.-El Ayuntamiento de Gernika-
Lumo fijará, dentro de su ámbito
competencial, el nomenclator oficial de
calles, caminos, barrios, barriadas,
montes, ríos, regatas y todo tipo de
toponimia en general.

Toda señal y anuncio de la vía
pública se redactará acorde con lo
establecido por el artículo 6 de estas
ordenanzas, sin perjuicio de garantizar la
comprensibilidad y de respetar las
normas internacionales.

Art. 22.- El Ayuntamiento adoptará
medidas efectivas a fin de que todo
impreso, aviso y notificación realizado
en el ámbito del transporte público de
Gernika-Lumo, lo sea en euskera en los
casos en los que se pueda garantizar la
comprensibilidad de los mismos.

Art. 23.- El Ayuntamiento adoptará
las decisiones oportunas para promover la
colocación de rótulo de oficinas, comercios
y demás establecimientos mercantiles en
euskera o tratar de corregirlos. Para
ello, entre otros, se utilizarán el
sistema de subvención, dejando en manos de
la Comisión de Euskera el establecer
criterios acomodados a cada momento para
ofrecer dichas ayudas económicas,
actuando acorde con los resultados del
oportuno estudio de la situación social.

Art. 24.- Con arreglo a lo dispuesto
en los artículos 26 y 27 de la Ley Básica
10/1982, de 24 de Noviembre, corresponde a
los poderes públicos adoptar las medidas
pertinentes para que se haga uso del
euskera en todos los ámbitos sociales y
en la publicidad, así como para que
aumente su presencia en la vida social en
general.

Por lo tanto, el Ayuntamiento de
Gernika-Lumo, al hilo del citado objetivo y
dentro de su ámbito de actuación,
adoptará y hará que se cumplan las
siguientes medidas:

1.- En el momento de conceder

erizpidea ere kontutan hartuko da. Ondorioz, Gernika-Lumoko Udalerangandik dirulaguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoak nahi entitate juridikoek, beren ihardun subentzionatuetan argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta ezagutzera eman beharko duten propaganda ere, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskeraz edo euskeraz eta gaztelaniaz egin beharko dutelarik. Era berean, ospakizun konkretuetan bozgoragailu bidez ematen dituzten mezuak ere euskeraz edo euskeraz eta gaztelaniaz eman beharko dituzte.

Euskeraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskerazkoari eman beharko zaio lehentasuna, euskerazkoari adierazpenez jabetu litezkeenak elebidunak baitira.

Subentzioak eskuratzeko baldintzetariko bat izango da hori guztia, subentzio hartzaileak, subentzioa jaso ahal izateko, derrigorrez bete beharko duelarik.

2.- Udal instalazioak eta materialak erabili ahal izateko ere aurreko puntuan aipaturiko baldintzak bete beharko dira, horrez gain instalazio barnean jarritako publikitate ere euskeraz azalduz. Udalak, beraz, zernahi udal instalazio eta materiale erabiltzeko baimena ematerakoan, hizkuntz baldintza horren berri emango die interesatuei, eta fidantza itzuli baino lehen egin ohi diren egiaztapenetariko bat izango da hizkuntzari buruzkoa ere.

3.- Herriko Festetako barraketako idatzi, iragarki eta txartelak euskeraz edo euskeraz eta gaztelaniaz egingo dira, urtero izaten den subastaren baldintzen artean hori ere azalduz eta hala jakineraziko zaie barrakariei, fidantza itzulo aurretik baldintza hori bete den ala ez egiaztatu beharko delarik.

25. Art.- Eskola mundua eta eskolumeen arteko giroa euskalduntzeko iharduera osagarriak bultzatuko ditu Udalak.

Hori guztia, gurasoen eta haurren aukera errespetatuz eta ikastetxeekin

subvenciones a sociedades de carácter cultural, deportivo o recreativo, también se tendrá en cuenta el criterio lingüístico.

En consecuencia, tanto las sociedades como las personas físicas o jurídicas que reciban algún tipo de subvención del Ayuntamiento, tendrán que redactar y dar a conocer en euskera o en euskera y castellano los escritos, avisos y demás comunicaciones que publiquen en su actividad subvencionada, debiendo proceder de igual manera con la propaganda, bien sea oral o escrita, que deberá ser realizada en euskera o en euskera y castellano. Asimismo, los mensajes emitidos deberán transmitirse en euskera o en euskera y castellano.

En las comunicaciones que se realicen en euskera y castellano, y sobre todo las realizadas oralmente, se le dará prioridad al euskera, ya que quienes pudieren entender la comunicación en euskera son personas bilingües.

Todo ello conformará uno de los requisitos para poder recibir subvenciones, debiendo el destinatario, cumplir obligatoriamente dicha condición para poder percibir la ayuda concedida.

2.- De igual forma, para poder hacer uso de instalaciones o material municipal, habrá que dar cumplimiento a las condiciones anteriormente citadas, debiendo ir en euskera la publicidad colocada en el interior de las mismas. El Ayuntamiento, por lo tanto, a la hora de conceder autorización para el uso de cualquier tipo de instalación o material municipal, dará a conocer a los interesados dicha condición lingüística, y ésta referente a la lengua será una de las que haya que verificar antes de la devolución de la fianza.

3.- Los escritos, anuncios y carteles de las barracas de las Fiestas Patronales, deberán ir en euskera o en euskera y castellano, estableciéndose como condición en las subasta anual realizada para ello, debiendo verificar el cumplimiento de la misma previamente a la devolución de la fianza.

Art. 25.- El Ayuntamiento promoverá actividades complementarias para euskaldunizar el ambiente en el mundo escolar y entre los escolares.

Todo ello se desarrollará respetando plenamente la elección que realicen padres

elkarlanean burutuko da, horretarako medio Udal Kontseilu Eskolarra izango delarik.

26.Art.- Hezkuntza unibertsitarioari dagokionean, euskerazko ikasketak egiteko zaletasuna suztatuko du Udalak, eta Unibertsitatean gaur egun euskeraz burutu ezin daitezkeen ikasketak euskeraz egin ahal izateko, behar den instantzietara joko du beharrezko azpiegitura sor dadin eskera eginez.

27. Art.- Hizkuntz normalizazioaren esparruan Udal honen xede nagusietarikoa euskeraz dakitenen kopurua gehitzea eta hitzegiteko gai direnak alfabetatzea denez, lan horretan diharduten erakundeak lagunduko ditu Udalak, bai diruz bai azpiegituraz.

LAUGARREN KAPITULUA
EUSKERAREN NORMALIZAZIORAKO UDALAREN
AZPIEGITURA.-

28. Art.- Ordenantza honen aplikazio eta garapenerako etorkizunean har daitezen neurrien zuzendaritza eta jarraipenaz Udalako Euskera Zerbitzua arduratuko da eta Udalak barne antolamendu sistemaren barruan euskerari buruzko politikarako Delegazio bat izango da.

Euskera Arlorako Delegazioan Euskera Batzorde bat eratuko da, eta honetan eztabaidatuko dira Delegazioak egin beharreko proposamenak, ondoren Udaleko bidezko organo politikoak erabaki eta honen arabera Euskera Zerbitzuak ihardun beharko duelarik.

Aipatu Euskera Batzordea, Gernika-Lumoko Udalerrian diharduten pertsona, elkarte, erakunde eta gizarte esparru ezberdinen eztabaidarako elkargune izango da, Udalaren hizkuntza normalizaziorako ihardunaren ardatzak finkatu eta berrikusteko erizpideak emateaz ardura

y niños y en colaboración con los centros escolares, utilizando como medio el Consejo Escolar Municipal.

Art. 26.- En lo relativo a la enseñanza universitaria, el Ayuntamiento promoverá la elección de estudios en euskera y acudirá a las instancias oportunas para solicitar la habilitación de infraestructuras precisas para cursar carreras universitarias que actualmente no puedan hacerse en euskera.

Art. 27.- En el ámbito de la normalización lingüística, siendo uno de los objetivos primordiales de este Ayuntamiento el incrementar el número de vasco-parlantes y la alfabetización de los que tienen conocimiento oral, el Ayuntamiento apoyará a las entidades que trabajan en ese campo, tanto mediante subvenciones como ofreciendo infraestructura.

CUARTO CAPITULO
INFRAESTRUCTURA MUNICIPAL PARA LA
NORMALIZACION DEL EUSKERA.-

Art. 28.- El Servicio de Euskera se hará cargo de la dirección y seguimiento de las medidas que se adopten en el futuro para la aplicación y desarrollo de la presente Ordenanza y el Ayuntamiento en su organigrama interno dispondrá de una Delegación para la política relacionada con el euskera.

En la Delegación de Euskera se creará una Comisión de Euskera y en ésta se examinarán las propuestas a realizar por aquel organismo, para que a continuación el órgano político que corresponda decida y, acorde con ello, debiendo actuar el Servicio de Euskera.

La mencionada Comisión de Euskera será punto de encuentro de diferentes personas, grupos, organismos y áreas sociales que trabajan a favor de la normalización del euskera, haciéndose cargo de determinar los criterios para el establecimiento y revisión de las

izanik.

29.Art.-Udal Barneko Administrazioan ENBAk (Euskeraren Normalizaziorako Batzordeak) ezarriko ditu udal enpleguatuak euskalduntzeko eta/edo alfabetatzeko prozesurako egitasmoak, erakunde hori Udal Langilego Batzordeak izendatutako bi ordezkari, Euskera Arloko Arduradunak eta Euskera Batzordeko Arduradunak osotuko dute.

30. Art.- Ordenantza hau aplikatu eta garatzerakoan zein hizkuntza normalizaziorako ihardun orokorrean, hizkuntz politikaren eskumena duten Erakundeekin elkarlanean arituko da Udala, eta oso bereziki Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiarekin eta HAEE-IVAPEkin.

31. Art.- Gernika-Lumoko Udalak, "Udal Euskaltegia" Herri Fundazioa dauka infraestruturara propioa Ordenantza honetan aipatutako zenbait helburu gauzatzeko eta egiteratu beharreko egitasmo bakoitzean balioztatuko du nola erabili dezakeen.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.- Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiak Udaleko lanpostuen hizkuntz eskakizunak, Ordenantza hauen 14 eta 15. Artikuluetan azaldu bezela eta Urriaren 17ko 224/1989 Dekretuaren IV. Kapituluari jarraiki zehatu ondoren, Ordenantza honi eranskin gisa erantsiko zaizkio, hizkuntza eskakizun horiek afektaturiko artikulak berrikusi egingo dituela Udalak eta baita egokitu hitzkuntz eskakizunen aplikaziorako plana.

Bigarrena.- Gernika-Lumoko Udalak sortu edota bultzatzen dituen programa

bases de acción para la normalización lingüística en el Ayuntamiento y municipio de Gernika-Lumo.

Art.29.- Dentro de la Administración Municipal será el ENBA (Comisión para la Normalización del Euskera) el que establezca los proyectos a aplicar en el proceso de euskaldunización y/o alfabetización de los empleados municipales, conformando dicho organismo dos representantes de la plantilla del Ayuntamiento nombrados por el Comité de trabajadores, el Delegado del Area de Euskera y el Responsable del Servicio de Euskera.

Art. 30.- Tanto en la aplicación y desarrollo de esta Ordenanza como en la actividad general de normalización lingüística, el Ayuntamiento colaborará con las Instituciones competentes en política lingüística y muy especialmente con la Secretaría de Política Lingüística del Gobierno Vasco y con el HAEE-IVAP (Instituto Vasco de Administración Pública).

Art. 31.- El Ayuntamiento dispone de la Fundación Pública "Udal Euskaltegia" como infraestructura propia para la consecución de variados fines señalados en esta Ordenanza y valorará su posible utilización en cada plan a ejecutar.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.- Una vez hayan sido definidos por la Secretaría General de Política Lingüística del Gobierno Vasco los perfiles de los puestos de trabajo, tal y como indican los artículos 14 y 15 de esta Ordenanza y acorde con el Capítulo IV del Decreto 224/1989 de 17 de Octubre, se adjuntarán a esta Ordenanza como anexo procediendo el Ayuntamiento a revisar los artículos afectados por la definición de dichos perfiles, elaborando y aprobando a su vez el plan para la aplicación de los mismos.

Segunda.- En todos los programas que elabore y/o promueva el Ayuntamiento de

guztietan hizkuntza erabileraren normalizazioaren ikuspegia kontuan hartu behar izango da, eta Udaleko Euskera Zerbitzua izango da beti ere Ordenantza honen ildotik, hizkuntz normalizaziozko ikuspegiaren presentzia berma dadin informatuko duena. Hori guztia, erabakia dagokion udal organoak hartzearen kalterik gabe.

Hirugarrena.- Udalak onartutako gainontzeko Ordenantza eta xedapenek, Ordenantza honetan jasotako xedapenak bereganatu egin beharko dituzte, beraiei dagokien guztian.

Laugarrena.- Udalak, Euskeraren Erabilera Normalizatzeko Ordenantza honen emaitzen azterketa eta Ordenantzaren berrikuspen orokorra egingo du indarrean sartu eta bost urtetara euskeraren normalizazioari buruzko legeria edo arautegi orokorraren nahi egoera soziolinguistikoaren aldaketaren ondorioz edota bestelako edozien arrazoiengatik lehenago berrikustea egoki ez baderizkio.

XEDAPEN DEROGATZAILEA

Baliorik gabe geratzen dira Ordenantza honen maila berekoak edo txikiagokoak izanik Ordenantza honetan xedatuarekin bat ez etorritako kontrajarritako dauden arau edota erabaki guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honen aplikazio eta garapenerako beharrezko diren xedapen eta programa berezi eta zehaztuak erabaki eta bultzatuko dituzte Udaleko organo exekutiboek.~

Gernika-Lumo, habrá que tener en cuenta el aspecto relativo a la normalización lingüística, y será el Servicio de Euskera del Ayuntamiento quien informará con el fin de garantizar la presencia de dicho aspecto, siempre con arreglo a la presente Ordenanza y a la normativa jurídica en vigor. Todo ello sin perjuicio de que el acuerdo sea adoptado por el órgano municipal correspondiente.

Tercera.- Las demás Ordenanzas y disposiciones aprobadas por el Ayuntamiento deberán incorporar las disposiciones recogidas en esta Ordenanza en todo aquello que les corresponda.

Cuarta.- A los cinco años de la entrada en vigor de la presente Ordenanza de Normalización del Uso del Euskera, el Ayuntamiento procederá al examen de los resultados de aquélla, así como a su revisión general, sin perjuicio de que sea revisada con anterioridad si debido a variaciones producidas en la legislación o normativa general relativa a la normalización del euskera, bien en la situación sociolingüística, o por cualquier otro motivo lo considere oportuno.

DISPOSICION DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones que, siendo de igual o inferior rango a esta Ordenanza, se opongan a lo dispuesto en las mismas.

DISPOSICION FINAL

Los órganos ejecutivos del Ayuntamiento dispondrán y promoverán cuantos acuerdos y programas específicos y concretos sean necesarios para la aplicación y desarrollo de la presente Ordenanza.